



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010ko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**MUSIKAREN ETA  
DANZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA  
Y DE LA DANZA**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.  
Ez ahaztu azterketako orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

**A AUKERA**

**1. atala. Iruzkina eta analisisia (5 puntu).**

J.C. de Arriagaren *Esklabo zoriontsuen* obertura

**2. atala. Musikaren eta/edo dantzaren historiari buruzko testu labur bati buruzko iruzkina (2,5 puntu)**

Hautatu testu hauetako bat:

- a) Johann Sebastian Bach-ek Georg Erdmann-i idatzitako gutuna
- b) Stravinski-ren balleta

**3. atala. Definitu musika-termino hauek (2,5 puntu):**

1. Fuga
2. Motiboa
3. Zifratu estatubatuarra
4. Obertura
5. Pordoia

---

**B AUKERA**

**1. atala. Iruzkina eta azterketa (5 puntu).**

*Hiru puntako kapela: dantzak - jotak.* Manuel de Falla

**2. atala. Musikaren eta/edo dantzaren historiari buruzko testu labur bati buruzko iruzkina (2,5 puntu).**

Hautatu testu hauetako bat:

- a) Johann Sebastian Bach-ek Georg Erdmann-i idatzitako gutuna
- b) Stravinskiren balleta

**3. atala. Definitu musika-termino hauek (2,5 puntu):**

1. Kanona
2. Testura
3. Gaia
4. Homofonia
5. Arpegioa

**MUSIKAREN ETA  
DANZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA  
Y DE LA DANZA**

**a) testua**

*Musika eta hitzak: Musikagile garrantzitsuen gutun hautatuak*

Johann Sebastian Bach-ek Gerog Erdmann-i idatzitako gutunaren zatia

Leipzig, 1730eko urriaren 28an

Jaun ohoragarria:

Barka beza berorrek lagun zahar eta leial honek gutun honekin berori gogaitzeko atrebentzia hartu izana. Ia lau urte dira berorrek nire gutunari erantzuteko ohorea izan nuela. Gogoan dut garai hartan nire egoeraren berri emateko eskatu zidala berorrek, eta, honen bidez, xumeki egingo dut aldi hartan bezalaxe. Berorrek badaki nire bizitzaren nondik norakoa zein den, gaztetasunetik zorte-aldaketak Köthen-era *kapellmeister* gisa eraman ninduen arte. Han, musika maitatzen eta ezagutzen zuen printze graziako baten babespean egon nintzen, eta bizitza guztia haren zerbitzura ematea erabaki nuen. Nolanahi ere, *Serenissimus* delakoak Bereburg-eko printzesa batekin ezkondu behar izan zuen; beraz, badirudi printzearen interes musikala epeldu egin zela, batez ere printzesa berriak musikarako zaletasun gutxi zuelako. Jainkoak nahi izan zuen Thomas-Schule-ko *Director musices eta kantor* izan nendin, nahiz eta hasieran batean ez zirudien niretzat egokiena zela *kapellmeister*-kargua uztea *kantor* izateko. Horrenbestez, nire erabakiari eutsi nion urte laurden batez, baina postu horrek hain egoera txarrera eraman ninduen, ezen, azkenean (eta bereziki seme-alabek ikasketak egiteko grina adierazi zutelako), Leipziger joatea erabaki bainuen, Jainkoaren izenean; azterketak egin nituen, eta, ondoren, kargu berria hartu nuen. Hementxe, beraz, dihardut zerbitzu ematen, Jainkoaren nahiari jarraiki.

Erreferentzia:

Esteve, R. (2001). *Música y palabras: Cartas escogidas de los grandes compositores*. Barcelona: Océano

**b) testua**

Stravinskiren balleta

*Gure garaiko musikari handia: Igor Stravinski*

Manuel de Fallaren *Escritos sobre Música y Músicos* liburuko testutik itzulia (27. or.)

Duela sei urte Parisko Operan Stravinskiren lehen balleta —*Suzko txoria*— estreinatu zenean, inork ez zuen ezagutzen egilea. Errusiarra zela baino ez zekien jendeak berari buruz; hogeita hamar urte bete gabe zituela, eta Rimski-Korsakov-en jarraitzailea zela. Ez zen askorik hori guztia, baina obra horren estreinaldiak, bat-batean, bere herrialdean musikagile gazteen lehen lekura eraman zuen, bai eta Europako gainerako herrialdeetan ere. Hala ere, partitura hori miresgarria izan arren, egilearen nortasuna ez zen eman aditzera zehaztasunez beste denboraldi batean *Petruxka* entzungai egon zen arte (gaur egun, Sergio Diagilev-ek eskaintzen digu).

Arrakasta ikaragarria izan zuen. Fede oneko musikariek —berriek, batez ere— elkar zoriontzen zuten, garaipen kolektiboa balitz bezala; beste batzuek —fede txarrekoek eta ohiturazaleek—, berriz, marmar egiten zuten, eta itzaletan ezkututzen ziren mespretxuzko keinuz. Dena den, laster hartu zuten mendekua. Mendeku hori, zaratatsua inondik ere, *Udaberriaren sagarapenarekin* etorri zen. Gordetako amorru hori lehertu egin zen obraren hasieratik, eta *crescendo* joan zen emanaldiaren bukaeraraino. Balleta taularatu zen beste aldiz errepikatu zen gertaera hori; baina antzokia beteta egoten zen beti, eta defendatzaile kopurua hazten ari zen egunak igaro ahala.

Erreferentzia:

Falla, M. (1972). *Escritos sobre música y músicos*. Madril: Espasa-Calpe

# Los Esclavos Felices

## OBERTURA

J. C. de ARRIAGA

### Andantino pastoral

Flautas  
Coboes  
Clarinetes en Si b  
Bajones  
Crompas en Fa  
Timbal de La

### Andantino pastoral

Violin I  
Violin II  
Viola  
Violoncello  
Contrabajo



VI. I  
VI. II  
Vla.  
Vcl.  
Cb.

*p*

*p*

This system contains five staves. The Violin I and Violin II parts feature melodic lines with slurs and accents. The Viola and Violoncello parts play rhythmic patterns with slurs. The Contrabasso part has a simple bass line. A dynamic marking of *p* is present in the Violoncello and Contrabasso staves.

Fl.  
Ob.  
Cl.  
VI. I  
VI. II  
Vla.  
Vcl.  
Cb.

*p*

*p*

*p*

*p*

This system contains eight staves. The Flute, Oboe, and Clarinet parts are mostly silent, with a few notes at the end of the system marked with a dynamic of *p*. The Violin I and Violin II parts continue their melodic lines. The Viola and Violoncello parts continue their rhythmic patterns. The Contrabasso part has a simple bass line. Dynamic markings of *p* are present in the Flute, Oboe, Clarinet, Violoncello, and Contrabasso staves.



①

Fl.  
Ob.  
Cl.  
Fag.  
Cor.  
VI I  
VI II  
Vla.  
Vlc.  
Cb.

Fl.  
Ob.  
Cl.  
Fag.  
Cor.  
VI I  
VI II  
Vla.  
Vlc.  
Cb.

*p* Div. Unis.



VI. I

VI. I

Vla. Div. Unis.

Vlc.

Cb.

Fl. I.

Cl. I.

Fag. p

Cor. p

VI. I

VI. I

Vla. Div. dim.

Vlc. dim.

Cb. dim.





Fl. *p cresc.*

Picc. *mf cresc.*

Ob. *p cresc.*

C. Ingl. *a 2 p cresc.*

Cl. *p*

Fag. *p cresc.*

Cor. *mf cresc.*

Tr. *a Solo senza sord. mf*

Tromb. 1, 2 *pp mf*

e Tuba *pp*

Timp. *pp*

Tamb. *pp*

Cassa

P.

A.

Vl. 1 *pp cresc.*

Vl. 2 *pp cresc.*

Viola *pp cresc.*

V. C. *pp cresc.*

C. B. *pp cresc.*



poco rit. Allegro ritmico, molto moderato e pesante (♩ = 52)

Fl. *f* *ff marcato* *cresc.* *sfz* *cresc.* *sfz*

Picc. *f* *ff marcato* *cresc.* *sfz* *cresc.* *sfz*

Ob. *f* *ff marcato* *sfz* *cresc.* *sfz*

C. Ingl. *f* *ff marcato* *sfz* *cresc.* *sfz*

Cl. *f* *ff marcato* *sfz* *cresc.* *sfz*

Fag. *f* *ff marcato* *sfz* *cresc.* *sfz*

Cor. *f* *ff marcato* *marcatiss.* *sfz*

Tr. *mf* *f marcato* *cresc.* *sfz*

Tromb. 1.2. *f marcato* *sfz* *marcat.*

cTuba *f marcato* *sfz* *marcat.*

Timp. *f marcato* *sfz*

Bac. dilg. *f marcato* *sfz*

Tamb. *f marcato* *sfz*

Cassa *C<sup>2</sup> Sola p cresc.* (Platti Soli) *ff vibrato* modo. ord.

P. *ff* *ff*

A. *ff* *ff*

VI.1 *f cresc.* *ff* *cresc.* *sfz* *molto marc.* *sfz* *simile*

VI.2 *f cresc.* *ff* *cresc.* *sfz* *molto marc.* *sfz* *simile*

Viola *f cresc.* *ff* *cresc.* *sfz* *molto marc.* *sfz* *simile*

V.C. *f cresc.* *ff marcato* *molto marcato* *molto marc.* *sfz* *simile*

C.B. *f cresc.* *ff marcato* *pizz.* *arco* *molto marc.* *sfz* *simile*

J.W.C. 430

Fl. *cresc.*

Picc. *cresc.*

Ob. *cresc.*

C. Ingl. *cresc.*

Cl. *ff*

Fag. *pp*

Cor. *pp*

Tr. *molto marc.* *pp*

Tromb. I. & II.

Tuba

Timp. (Dach. ord) *mf* *pp*

Tamb. *ff* *vibr.* *pp*

Platti

P. *f* *cresc.* *pp*

A. *f* *cresc.* *pp* *senza arpegg.*

VI. 1 *cresc.* *ffz* *pp* *12*

VI. 2 *simile* *ffz* *pp* *div.*

Viole *cresc.* *ffz* *pp* *pizz.*

V. C. *ffz* *pp* *pizz.*

C. B. *ffz* *pp* *pizz.*

J.W.C. 439.

**MUSIKAREN ETA  
DANZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA  
Y DE LA DANZA**

**Jarraibideak**

Azterketako bi aukerak atal berberak dituzte (hiruna atal):

**1. Obraren iruzkina eta analisia (5 puntu)**

Azterketa eta iruzkina egiteko, CD bat emango da, aztertu beharreko obra edo obraren zati bat entzuteko, bai eta partitura zatiak ere. Nahi adina ohar egin daitezke partiturari buruz, eta egindako probarekin batera itzuli beharko zaio epaimahaiari.

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta azterketa:

- a) Obraren ezaugarri estilistiko eta formalak (2,5 puntu).
  - Konposizio-ezaugarriak: alderdi melodikoak, erritmikoak, harmonikoak — konposizio-baliabideak— (1 puntu).
  - Tinbrea: instrumentazioa, erabiltzen diren instrumentuak edo ahotsak... (0,25 puntu).
  - Testura: linea melodikoak eta akordeak konbinatzeko modua (0,50 puntu).
  - Forma: konposizioaren eskema, ideia musikalak antolatzeko modua, testuaren eta musikaren arteko lotura... (0,50 puntu).
  - Generoa: musika purua, deskribatzailea, programatikoa, dramatikoa, herrikoa, Mendebaldekoa ez dena, hirikoa, jazza... (0,25 puntu).
- b) Testuinguruaren egoera eta karakterizazioa (2,5 puntu).
  - Obraren fitxa: egilea, garaia, estiloa, kokapen geografikoa (0,50 puntu).
  - Alderdi sozio-politikoak eta ekonomikoak (0,50 puntu).
  - Garai horretako arte- eta musika-korronteak (0,50 puntu).
  - Aztertutako obra zer alderdi estetikitik kokatzen den (0,50 puntu).
  - Musikagilearen ideia artistikoak (0,50 puntu).

Entzunaldiaren iruzkinean eta azterketan, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

**2. Musikaren eta/edo dantzaren historiari buruzko testu labur bati buruzko iruzkina (2,5 puntu)**

Testuan agertzen diren pertsonaiak izango ditu oinarri iruzkinak. Nor diren, nongoak diren eta noiz bizi izan ziren. Musikari egindako ekarpenak. Garai horretako arte- eta musika-korronteak. Testuinguru sozio-politikoak.

Balioetsiko dira koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

**3. Sei musika-terminoren definizioa (2,5 puntu).**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak izango dira bakoitzerako. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko dira, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.